




## Okupazio tasa %71,5 izan zen lehen hiruhilekoan

### OKUPAZIO TASA. GUZTIRA

Ehunekoa

1. HIRUHILEKOA  
**%71,5**




Eustatek argitaratutako estatistika informazioak erakusten duenez, 16-64 urteko biztanleriaren okupazio tasak hobera egiten jarraitu zuen lehen hiruhilekoan, 2025eko aldi bereko %70,9tik egungo %71,5era igaro baitzen (sei hamarren gehiago). Sexuaren arabera, emakumeen okupazio tasak gizonenak baino bilakaera hobea izan du azken hiru urteetan. Hiruhileko honetan ere, okupazioak gora egin du

bi taldeetan 2025aren aldean, baina gorakada pixka bat handiagoa izan da emakumeen artean (sei hamarren) gizonen artean baino (bost hamarren). Ondorioz, genero arrakala 4,7 puntura murriztu da, urtebete lehenago baino hamarren bat gutxiago. Oro har, hiruhileko positiboa da Euskadiko lan-merkatuarentzat, eta emakumeen parte hartzeak hazkunde bidean jarraitzen du.


### OKUPAZIO TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoa



### OKUPAZIO TASA. GIZONAK


Ehunekoa



Bestalde, Langabezia tasa %6,7koa izan zen lehen hiruhilekoan, hau da, hiru hamarren hobetu zen 2025eko aldi beraren aldean. Jaitsiera pixka bat handiagoa izan zen emakumeen artean gizonen artean baino, %6,9ko eta %6,6ko tasak baitutuzte, hurrenez hurren, aurreko urteko % 7,2ko eta %6,8ko tasen aldean. Nazionalitatearen arabera, Espainiako biztanleriaren langabezia tasa %6,0 inguruan mantentzen da (%5,9), urtetik urtera lau hamarren igo den arren. Aldiz, atzerritarrei dagokiena nabarmen murrizten ari da, 2025ean % 18,4 izatetik lehen hiruhileko honetan % 12,9 izatera igaro baita.


## LANGABEZIA TASA. GUZTIRA

Ehunekoa




## LANGABEZIA TASA. EMAKUMEAK

Ehunekoa




## LANGABEZIA TASA. GIZONAK

Ehunekoa




## LANGABEZIA TASA. ESPAINIARRAK

Ehunekoa



## LANGABEZIA TASA. ATZERRITARRAK

Ehunekoa



Iturria: Eustat.

